

EUSKARA PROBA B1

ULERMENA

1. testua: irakurri testua eta erabaki hurrengo orrialdeko esaldiak testuarekin bat datozen ala ez.

Neskatoak

1950eko hamarkadatik aurrera, emakume askok etxea utzi eta Iparraldera joan behar izan zuten, etxeetan edota hoteletan lan egitera. Jon Abrilek, haien testigantzak bildu ditu “Neskatoak” dokumentalean.

Gerraren ondoren, 1950eko hamarkadan jende asko joan zen etxetik urruti lan egitera. Haien artean neskatoak.

Hasieran ez zuten Iparraldean lan egiteko baimenik, ezta pasaporterik ere. Mendia zeharkatu behar izaten zuten gordeka, inork ez ikusteko.

1950eko hamarkadaren bukaeran lortu zuten pasaporteak, baina hasieran mugatua zen; urtean hiru aldiz pasatzen ahal zuten muga.

1960-70eko hamarkadetan ere etxeetan behar handia zegoen eta horrek eraman zituen Mari Carmen Tapia (Lesaka, 1952) eta Inma Uranga (Zugarramurdi, 1950) kanpoan neskato lan egitera. Biak etxetik hurbil hasi ziren: Lesakan eta Dantxarinean. Biek gaizki pasatu zuten lehendabiziko lanarekin, baina pixkanaka-pixkanaka moldatu ziren.

Mari Carmen Tapia 12 urterekin hasi zen neskato, Lesakan. “Nire unibertsitatea izan zen”, dio, lanari erreferentzia eginez. Haurrak zaindu, etxeko lanak egin, eta , ondoren, eskolara. “Lan guztiak egin eta gero, eskolara? Ikasteko afizioa joan zen erabat”, onartu du. Hala, 14 urterekin, Lesaka atzean utzi, eta Irunera joan zen lanera. 1.500 pezeta kobratzen zituen, baina egoera beste askorena baino hobea zen: “Andrea fabrikatik ateratzen zen arratsaldeko lauretan, bazkaltzen zuen, eta joaten ginen biak hondartzara, edo Donostiara zinemara. Ezkongabea zen, eta alaba baten gisan tratatzen ninduen, primeran”.

Iparraldera joatea erabaki zuen 17 urterekin, ahizparekin batera lan egitera. 4.000 pezeta irabazten hasi zen Monzonen etxean neskato, Donibane Lohitzunen.

Garai hartan, muga pasatzeko arazo handirik ez bazen ere, Mari Carmen Tapiak gogoratu du Carrero Blanco hil zutenean, egoera nahastu egin zela, eta, badaezpada, etxeko andrea joaten zela bere bila Behobiaraino. “Orain inork ez luke

aguantatuko astelehen goizean sartu eta igande goizean atera. Ekuadortik datozenek egiten dute orain guk egiten genuena”, azaldu du Tapiak.

Berak, igandea libre izanda, azken tantaraino aprobeztatzen zuen. “Berandu joaten ginen lo egitera, eta, gero, biharamunean autobusa hartzeko goiz jaiki. Leher egina ailegatzen nintzen”.

Berria egunkaria (moldatua)

Esaldiak		BAI	EZ
1	1950 urte inguruan, neska asko etxetik joan ziren, gurasoei deus esan gabe.		X
2	1950eko hamarkadaren hasieran zaila zen Iparraldera joateko muga pasatzea.	X	
3	Mari Carmen eta Inma pozik hasi ziren lanean, etxetik hurbil zeudelako.		X
4	Mari Carmenek, lan egin bitartean, ikasketak egiten jarraitu zuen.		X
5	Mari Carmenek zorte handia izan zuen Irungo lanarekin.	X	
5	Mari Carmen Iparraldera joan zen lan egitera, han diru gehiago irabaziko zuelako.	X	
7	Carrero Blancoren hilketaren ondorioz, zailagoa zen muga pasatzea.	X	
8	Garai hartako neskatoen lan-baldintzak eta oraingo emakume migranteen baldintzak oso antzekoak dira.	X	
9	Igande libre gutxi zituen eta zituenak berandu arte lo egiteko aprobeztatzen zituen, leher egina egoten baitzen.		X

2. testua: irakurri beheko testua eta aukeratu erantzun zuzena.

Burua trebatzeko jokoak, modan

Duela hamarkada batzuk, korrika egitea egon zen modan; gero, aerobikaren eta kulturismoaren txanda izan zen; ondoren, yoga eta tai-xia etorri ziren, eta orain gutxi pilates egiten hasi zen jendea. Baina horiek denak atzean utzi ditu beste ariketa-mota batek: brain training edo burua lantzeko jokoak.

Azkenaldian, boladan daude garunerako jokoak. Informazioa prozesatzeko azkartasuna, memoria, arreta, logika... adimenaren hainbat alderdi lantzeko aukera eskaintzen dute joko horiek, eta, egileen arabera, nahikoa da egunero tartetxo bat aritzea burua pizteko eta gero eta adimentsuago izateko.

Nonbait, kontsumitzaileek joko horien alde onak garbi ikusten dituzte edo, besterik gabe, dibertigarriak iruditzen zaizkie, arrakasta handia izaten ari baitira. Adibidez, Ameriketako Estatu Batuetan 2 milioi dolarreko negozioa sortu zuten 2017an; iaz, berriz, 80 milioi dolarrekoa. Alegia, 40 aldiz hazi da bi urtean.

Egileen ustez, garuna muskuluen antzekoa da; entrenamendu egokia eginez gero, hazi egiten da, eta, zenbat eta gehiago entrenatu, orduan eta errazago eta azkarrago egiten ditu ariketak. Zientifikoki frogatua omen dago gainera.

Ana Galarraga, Zazpika aldizkaria

1. Nola aldatu dira azken urteetan jendearen ohiturak?

- a) Gorputza zaintzen hasi, eta, ondoren, burua zaintzera pasa da jendea.
- b) Modu batera edo bestera itxura fisikoa zaintzea izan da beti garrantzitsuena.
- c) Gero eta garrantzi handiagoa eman zaio ariketa fisikoari.

2. Zer proposatzen du burua ongi izateko?

- a) Ariketa fisikoa egunero egitea.
- b) Garuna lantzeko jokoak praktikatzea.
- c) Yoga, tai-xia edo pilates egitea.

3. Zenbat aldiz komeni da trebatzeko jokoetan aritzea?

- a) Hilabetean behin.
- b) Egunero pixka bat.
- c) Astean hiru-lau aldiz.

4. Zer diote kontsumitzaileek garuna trebatzeko jokoei buruz?

- a) Aspertu egiten direla, baina abantaila handiak ikusten dizkietela.
- b) Hilabeteak behar direla aurrerapenak ikusteko.
- c) Baliagarriak eta entretenigarriak iruditu zaizkiela.

5. Nolako irabaziak sortu dituzte joko hauek Ameriketako Estatu Batuetan?

- a) Azken aldian jokoen negozioak behera egin du.
- b) Irabaziak handitu egin dira azken urteetan.
- c) Pixkanaka igotzen ari dira irabaziak 2017tik aurrera.

6. Zer ondorio atera dute joko-egileek?

- a) Garuna trebatu daitekeela jokoen bidez.
- b) Joko asko erabili behar direla garuna trebatzeko.
- c) Muskuluak landuz garuna trebatzen dela.

Erantzunak:

1	2	3	4	5	6
A	B	B	C	B	A

IDAZMENA

1. ariketa: Eskaera. 75 hitz gutxienez.

Egoera:

Ama gurgil-aulkian duzu. Kalera ateratzen duzunean atarian dagoen koxka gainditzeko larri ibiltzen zara.

Egitekoa:

Atariko administrariari idatziko diozu konponbide bat eskatzeko. Horretarako:

- Aurkeztu zeure burua.
- Azaldu arazoa zein den.

- Eskatu ala proposatu konponbide bat.
- Eskerrak eman.

2. ariketa: Gutuna (100 hitz, gutxienez)

Egoera:

Urte sabatikoa hartu duzu lanean. Baduzu lagun bat Australian eta bolada baterako hara joan nahi duzu.

Egitekoa:

Gutuna idatziko diozu, zure berri emateko, zure asmoak kontatzeko eta bidaiarako laguntza eskatzeko.

Horretarako, ondoko gidoia erabiliko duzu:

- Agurtu.
- Azaldu zer dela eta hartu duzun erabakia.
- Zure asmoak azaldu: noiz eta nola joateko asmoa duzu.
- Laguntza eskatu bidaia prestatzeko.

AHOZKOA

1. ariketa:

1. Irakurri testua eta azaldu.
2. Zure ohiturez mintzatu.

Interneteko erosketak

Interneten erostea gero eta errazagoa da, dendetara joan eta erostea baino gehiago. Arroparen kasuan, esate baterako, ez da ilararik itxaron behar izaten, eta aldageletan erantzi eta janzten aritu beharrik ere ez. Interneten sartu, ikusi, aukeratu eta, tapa: botoiari sakatzea nahikoa da edozein gauza erosteko. Gero eta jende gehiagok erosten omen du modu

honetan. Arazoa izaten da batzuetan prestu-prestu pantailan ikusten duzun hori etxera iritsitakoan. Bai, oihal lodi-lodia zirudiena, mehea eta kaxkarra da; urdina zena, etxera iritsitakoan, berdea; eta probatu, eta Interneten jantzia zuenari beste "grazia" batekin geratzen zitzaiola konturatzen zara; hari leku guztietan berdin estu edo berdin zabal geratzen zitzaion, eta ez batean zabal eta bestean estu.

Internet mugarik gabe erosteko erakusleiho bihurtu dute, nahi duzuna topatu eta ri-rau batean etxeko atarian jartzen dizute pentsatzeko aukerarik eman gabe, badaezpada.

Gara. Mainer Eizmendi (moldatua)

Egitekoa:

1. Azaldu Mainerrek idatzitakoa.
2. Kontatu:
Non egiten dituzu erosketak?
Interneten erosteko ohiturarik baduzu?
Zein dira Interneten erostearen alde onak eta txarrak?
...

2. ariketa: Gai baten inguruko bat-bateko elkarrizketa.

Azaldu egoera eta egitekoa.
Gogorarazi: min 1 fitxa begiratzeko eta 6 min elkarrekin mintzatzeko.

Ez badira berez hasten, bati hasteko esan.
Beharrezkoa bada (komunikazioa eteten bada, desoreka badago, ekoizpena motzegia bada...) esku hartu, moztu, txanda aldatu, galderak egin...
Horretarako, hor dituzu galdera osagarriak.

Gaia: Ezkontzara joan ala ez joan?

Egoera eta egitekoa

Bikotea zarete. Datorren hilabeteen lehengusua ezkonduko zaizue eta gonbidatu egin zaituzte. Eztabaida dezente izan duzue, joan-ez joan, eta erabakia hartzeko momentua iritsi da.

Horretarako begiratu argazkiak eta hitz egin zuen artean: komentatu alde onak eta txarrak, nolako ezkontza izango den, zer gogo daukazuen, ezetz esateak zer dakarren...

Galdera osagarriak

- Zenbat ezkontzatan izan zara?
- Zenbateko gastua sortzen du ezkontzara joateak?
- Zer iruditzen zaizu oparien zerrenda denda batean uztea?
- Eta kontu korrante zenbakia gonbidapenean paratzea?
- Nolako ezkontzak eta ohiturak ezagutu dituzue inguruan?
- Zuk ezkondu behar bazenu, zer ezkontza mota egingo zenuke?